

## Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak polito ekin deutso fase barriari

11. orrialdea

## Lemoako jokalaria ez dabe soldatarik jaso

Lemoako jokalaria ez dabez soldata kobrau denporaldia hasi zanetik. Klube-ko presidenteak dino Cementos Lemonak eta Udalak ez dabezala euren patzinoak ordaindu, baina Udalak jakinarazi dau 2011 urtean S.D. Lemonari egin beharreko aportazio ekonomikoa osorik ordaindu deusala. 10. orrialdea



## Goi mailako bertso saioa antolatu dabe Zeanurin hilaren 22an

13. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 156

2012ko urtailaren 18a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Zaborra diru iturri izatea gura dau mankomunitadeak

Arratiako Udalen Mankomunitateko aurrekontuak onartu dira. Kriaren eraginez, diru aldetik igaz baino % 11 gitxiago daukie 2012 urteari aurre egiteko.

**D**ana dala, dirua ondo kudeatu ezker, gauza asko egin daitezkeza uste dabe Josune Gorospe, Iñaki Oلابari eta Aitor Sorriketa AUMkoak.

Lau arlo dira lehentasuna daukienak: langabeziaren kontrako burrukea, hondakinak gixitzea, efizientzia energetikoa eta indarkeria matxisteari aurre egiteko protokoloa.

Hondakinak gixitzea eta efizientzia energetikoa diru iturri izan daitezkeza, dinoe mankomunitadeakoak, eta holan lortutako diruak beste beharizan batzuk beteteko erabili. Kontuan izanda, arratiarri zaborra zabortegian botatea 350.000 euro kostetan jakiela, zaborra botatea dirua botatea dala dinoe. Horregaitik, Arratian birziklapena

na oraingo % 23tik (Bizkaiko batz bestea baino puntu bat gitxiago) % 30ra igotea daukie euren helburuen artean.

Langabeziaren kontra burrukatzeko enpresa eta hezkuntzakoak dabiz berbetan; hezkuntzea, enpresak eskatuko dabenari egokitu daiten, eta erakundeak zeintzuk diran eskuratu daitezkezan diru laguntzen barri jakiteko. Lanbidek Arratian bertan informazio puntu bat eukitea eskatuko dabe.

Indarkeria matxisteari aurre egiteko protokoloa, bariz, zezeilan egongo da prest. Eta bardintasun teknikari bat kontratetako diru partida bat dago aurrekontuetan. 8. eta 9. orrialdeak



Josune Gorospe, Aitor Sorriketa eta Iñaki Oلابari.

### ARRATIA

## Presoen aldeko bilgunea



Egin Dezagun Bidea ekimenak presoen aldeko bilgunea sortu eban Igorren hilaren 4an eta Arratiako aurkezpena egin eban 13an IKEn. Egoera politiko barrian, presoen eskubideen alde neurriak hartzeako eskatuen deutseez bilguneakoak Espainia eta Frantziako estadiuak. 5. orrialdea

### ARRATIA

## Farmaziak, guardiarik ez gaez

Farmazia ordutegiak aldatu egin dabez urtea hasteagaz batera eta ora-in gurean ez dago guardiako farmaziarik gaueko 22:00etatik goizeko 09:00etara. Bizkaiko Farmazialarien Elkargoaren ustez, leku askotan alferrikako zerbitzua da gauekoa. Zerbitzua modu eragingarrian bategaratzeko zonalde batzuk egin ditue farmazialariak. Arratiak Basaurigaz egin dau bat. Basaurin farmazia bat zabalik dago gauero. 5. orrialdea



### ARTEA

## Haur Eskolea martxan da

Astuibekoan, ipini ditue modulu prefabrikauak. Arteako Udalak lekua, azpiegitura, mantenimentua, ura eta garbiketea ipinten ditu eta Haur Eskolen Partzuegoak irakaslea eta ardurea hartzean dau. Haur Eskoleak gela bi, sukaldia, psicomotrizidade gela eta irakasle gela daukaz. Etorkizunean, egingo diran Babes Ofizialeko Etxetako behe solairu baten egongo da Haur Eskolea. 7. orrialdea

**E P A**  
Galdakao

www.epagaldakao.com

Matrikuletako epea, urtalla osoa.

Tlfn. 94 456 60 98

Helduen heziketa

E.P.A.  
IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

**KANTU HERRIKOIAK**

**ASTUAK EI JAUKOK**

"Kantu hau, Eleuterio perituaren semeak, Andonik, bere astoari kantau ei eutsen".

Astuak ei jaukok aginetako mine, gozian goziagaz berez egine.

Perituek nahi ba dau ganadu asko auki, ganaduok izin biharko daude eruki.

Astuak ei jaukok aginetako mine gozian goziagaz berez egine.

***Astuak ei jaukok***

Iturria: Bitoria Artetxe Ziarrusta (Zeanuri 1914-2006).

1978an, Zeanurin, Mikel Manterola, Iñaki Larrakoetxea eta Ruper Lekuek jasoa.

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Urtailearen 16tik 22ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**  
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Urtailearen 23tik 29ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

**22:00etatik 09:00etara**  
Aranburu. Amorebieta-Etxano.  
**Urtailearen 30etik zezeilaren 5era**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**  
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxa 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxa 94 631 71 01

**Parketxea**  
94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Trenak**  
Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.  
Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**  
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45koa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.  
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.  
Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Maialen Egileor eta Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.  
**Publizitatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** June Egileor, Maria Rodríguez eta Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tirada:** 6.400 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:

begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Mailuki



Mailuki fruta izenak ezaguna emoten badau be, gaur egun batuko marrubi berbeak baztertu egin dau ia-ia. Fruta txikia, gorria eta gozoa dogu mailuki, mailubi edo mailugia (mallúkie, mallúbie edo mallúgie, ahoskatuta). Postreetan, edo pasteletan ingrediente moduan nahastautu, guztiz osasuntsua eta gomendagarria da jateko bere sasoian, udabarran batez be.

## ERETXIA

### Umeak musikeagaz olgetan



**HELENA LAZARO**

Musikaria

**Z**ein da musikea ikasteko edaderik onena? Ume jaio barri bateri musikea erakutsi ahal jako? Zelan dakit nire umeak musikarako talentua daukan? Zelan jakin umea piano edo biolineko klase baterako prest dagoan? Itan honeek sarritan egiten dabez gurasoak eta laburrean nire eretxia emon gurako neuke.

Musikearen garapena jaioten dan momentuan edo arinago hasten da. Fetoak musikearen presentzia igarten dau eta esan ahal da ume guztiak jaio dirala musikea ikasteko gaitasunagaz. Jaio barri bat musikan dagozan esaldi ritmiko eta melodikoak bereiztuteko gai dana badakigu eta potentzi musikal bat daukana be bai. Hori garatutea ordea neurri handi baten gurasoan esku dago. Bederatzi urtera arte gitxi gorabehera inguruko musikak eragin handia dauka gerora musika ikasteko eukiko dauan gaitasunean. Horrek esan gura dau umearen lehenengo hileak eta urteak dirala ambiente musikal bat sortzeako onenak. Horren helburua ez da umeak instrumentu bat jo daiala edo musikari profesionala izatea, baizik eta umeak gerora musikeagaz ahal danik eta gehien disfrutau daiala bizitzan eta musikeak daukan eragin positibo guztietaz gozatutea.

Ikasteko edo irakasteko orduan, hizkuntza baten antzekoa dala esan geinke. Onena umeari ahal danik eta arinen eta era naturalenean aurkeztea da. Ama hizkuntza izango balitz lez, musika ikasteko edo irakasteko orduan prozesu batek egon beharko leuke. Prozesua hizkuntza ikasteko modukoa bada, kontuan hartu behar dogu lehenengo entzun egiten dogula, gero berbaz hasten garala,

gero irakurten eta azkenik idazten. Musikan be, berbaz hasi baino lehenago soinuak entzun egingo ditue umeak, gerorako hiztegi musikal bat sortuz. Gero entzun dabenaren arabera soinuak aterateko edo erritmo bategaz gorputza mobiduteko gai izango dira. Soinuak atera eta soinu horreek gura daben moduan ordenauta inprobisazi-noak egiten dabez eta eurekaz olgetan, umeak komunikazio musikal baten sartzeako gai dira. Musikeagaz nahikoa olgau ostean soinuai izena emoten ikasiko leuke umeak, hau da, notak irakurten hasiko litzateke eta gero idazten edo instrumentuagaz partituratik jotzen.

Badakigu umeai olgetea gustetan jakiena baita ume txikiak euren kabuz helduakandik baino askoz gehiago ikasten dabena. Jolasen bidez umeak euren inguruko mundua ezagutzen dabe, zelan pentsau, zelan ikasi, zelan komunikau musikearen bitartez beste batzuekaz... horregaitik olgetan musika erakustea da onena, holan modu informal baten musikea erakutsi ahal deutsegu.

Musika tresna bat jotzen ikasteko fisikoki be prest egon behar da. Instrumentu baxotxa desbardina da eta danak ez dira edade bardinean hasten. Baina danok erabilteko gai garan musika tresna abotsa da, eta abotsagaz danok sartu ahal doguz umeak musikearen mundu magikora txiki txikitatik.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea Iuzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrean beharrez,  
euskeraz eginez*

Enbarrak  
Batzen gaitu

**MONDRAGON**

## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIA**"Deshaginaría"?**

Luzaroan ibili naz hagineko minagaz eta, azkenean, bildurrak hilik egon arren, dentistearengana joan behar izan dot. Hagina atera behar deusta. Artega nago. Ez daukat ezer dentisten kontra, baina hainbat sentimendu eragiten dauz bisita horrek nigan eta ez dot errez ahazten.

Dentistearen aurrean etzanda nago, begiak itxita, agoa zabalik, txua zurrut egiteko hodia agotik dingilizka, alozoko itxureagaz. Egundo ez dot aitu dentisteak zergaitik egiten deustazan galderak jarkera horretan nagoala, enpeinau arren ezin izaten dot-eta erantzun.

Ginekologoaren eta dentistearen aulkian bardin-bardin sentiduten naz: narrugorrian. Baina, gainera, dentistearengan gorputzeko atalak sobran daukadazala pentsetan dot, izan be,

egundo ez dot jakiten mihina non gorde; hobe litzateke mihina Legoko pieza bat izatea eta kalera urten arte fraketako boltsikoan gorde ahal izatea.

Etzanik nagoala, neure pentsamentuak derrigortu egin behar dodaz, zeozertan pentsau gura dot, baina pentsamentuok inoz be ez dira berez etorten, dentistearen erremintetara hegaz egiten deusta gogoak gura barik. Burura etorri jatan lehengo gauzea izan da dentisteari haginlari be esaten jakola, -ari atzikiaren adierea berba nagusiak adierazoten dauan horretan aritzen dan gizakia da eta. Baina ni hagina ateraten etorri naz hona, eta beraz, haginlaria aurrerantzean ez da hagin horretan arituko. Nire kasuan ez da, ba, *deshaginaría* izango?

Gustura gagozanean denporea arin-arin joaten da, baina beste batzuetan minutuak ordu bihurtzen dira. Ordu luuuuuuzee bat konsultan egon eta gero, poz-pozik hartu dot amasea kaleko aro onean, nahiz eta zulo bi euki: bata uietan eta bestea karteran.

## ZERTZEAN



## IRATI BERNAOLA

1

Garai hartatik bostehun urte astiro ez dira igaro Nafarroako erresumako mugetatik haratago Euskal Herrian autonomia bizi izan gara luzaro noizbait libreak izan ginela ondo frogatuta dago.

2

1512, urte hau gogoratzen dugu aurten Konkista hartatik 500 urte luze igaro den arren paktu bat izan zela diote nahiz ta hori egia ez den gure erresuma eskuetatik indarrez kendu ziguten.

3

Nahiz ta Nafarrak honen aurrean gogotsu ziren altxatu kanpoko armadek gure erresuma indarrean zuten hartu jendea atxilotu, erbesteratu eta herriak suntsitu baina gure duintasunarekin inoiz ez zuten amaitu.

4

Egin zutena onartu arte ez dugu izango bakerik gertatu zena plazaratzeko badaukagu gaitasunik nahiz ta urteak pasatu diren oraindik ez gaude pozik eta beste herri batzuen menpe jarraitzen dugu oraindik.

5

Gaur egun ere lanean gaude independentzia lortzeko horren ondorioz ehundaka preso kartzelako daude menpeko konponbidea eta hau ere ikusten dugu hobeto: gehiengo handia prest dagoela gatazka hau konpontzeko.

6

Urtarrilaren 7koa ere Bilbon kolosala izan zen euskal presoen etxeratzea ozenki aldarrikatzen ta luzerako den erronka bat botako dizuet hemen ia gaurdanik 500 urtera berriro libreak garen.

## BEGI TXINDORRA

Triste da hildako txori bat topetea. Akaso, txoria ilusinoaren ikurra dalako, hegan egiten dau eta. Lur-lurrean hilda ikusteak pentsamentu baltz asko dakardaz burura, baina horreek astinduta be, ilusino izpirik daukan pentsamenturik ezin dot batu.

Txikitan askotan egoten nintzan gaisorik eta behin amamak ipuin bat erosi eustan ohean larregi ez aspertuteko. Ipuinaren izenburua *Pio repio y los pájaros* zan. Han kontetan zan herri baten kazari asko egoazala eta txoriak iges egin ebela herritik. Txori barik zomorroak ugaldtu egin ziran, bertakoen bizimodua guztiz izorratu arte. Pio, ipuinaren protagonistea, txorien laguna zan, eta harek deituta itzuli egin ziran txoriak eta jentea zoriontsu izan zan barriro.

Gure mendietan aurten pinu-beldarra izurrite handia dala bolobolo dabil danon agotan.

Kukuak jaten ei ditu pinu-beldarrak eta haren kantuaren zain nago ni. Behin eta barriz entzun gura dot beti itxaropena eta ilusinoa ekarri izan dauan kukuaren kantu hori. Behar-beharrezkoa dogulakoan.



  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorosti.cl.com

 **Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika**

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igone-Bizkaia  
T. 94 631 30 39

Marina Urigoitia Aldekoa, 110  
R.P.S. 25/06

  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

## ARRATIA

# Urte hasieratik gauean guardiako farmaziarik ez

Farmazia ordutegiak aldatu egin dabez urteagaz batera eta orain 22:00etatik 09:00etara Arratiako farmaziak itxita dagoz. Farmazialarien aspaldiko aldarrikapena zan hau.

### Erredakzinoa

Bizkaiko Farmazialarien Elkargoaren ustez, leku askotan alferrikako zerbitzua da gauekoa. "Hemen, Arratian aste osoan, batz bestea, erabiltzaile bat izaten genduan. Askotan ez da hori be" azaldu deutso BEGITURI Nekane Badiola Arteako farmazialariak. Gaueko zerbitzua jente gitxik erabilten dau eta Arratian, gainera, ez dago medikurik arrastiko bostetatik goizeko zortzirak arte. Hori dala eta, inork joan behar dauanean medikuarenera edo ospitalera gauean, normalean medikuenetik edo ospitaletetik gertuen dagoan farmazian erosten ditu agindutako botikok.

### Zerbitzua bateratzen

Zerbitzua modu eragingarrian bateratzeko zonalde batzuk egin ditue farmazialariak. Arratiak Basaurigaz egin dau bat. Basaurin farmazia bat zabalik dago gauero. Dana dala, aurrera

begira "Bizkaian farmazia jakin batzuetan, eta beti horreetan, emotea gaueko zerbitzua da gure aldarrikapena. Hori erreza goa litzateke erabiltzailearentzat eta arrazionalagoa guretzat" dino Badiolak.



Farmazia.

## ARRATIA

# Gorbeia Central Park Madrilera doa

### Erredakzinoa

Hilaren 18tik 22ra Madril en egingo dan FITURen, Nazinoarteko Turismo Azokan, Gorbeia Central Park-ek bere proiektua erakutsi eta natura turismo produkturik onenaren lehiaketan hartuko dau parte. Saria lortu ezker, bultzada handia litzateke gure eremuko turismoarentzat. Izan be FITURen nazinoarteko agentziak eta touroperadoreak izaten dira eskeintza barri bila eta Gorbeia Central Park-era bideratuko leukiez euren bezeroak urte osoan zehar.

FITUR egiten dan 32. urtea da eta bertan touroperadoreak, bidai agentziak, garraio enpresak, zerbitzu enpresak, erakunde ofizialak eta hedabideak, besteak beste, hartzean dabe parte.

Gorbeia Central Park-ek ibilbide tematikoak eskeintzen ditu, Gorbeia inguruan kultur eta abentura jarduerak egiteko.

## ARRATIA

# Aldaketa txiker bat autobusen ordutegietan

### Erredakzinoa

Zeanuritik Bilbora joaten diran autobusak, hau da, 3917 zein 3927 lineakoak, aldaketa txiker bat izan dabe ordutegian. Orain, bost minutu lehenago urteten dira Alzustatik. Alzustatik hogeitxikiagoan urteten da 3917 lineako autobusa, herrietatik pasetan dana; autobidekoa, barriz, eta hamarrean.

Beraz, Zeanuriko plazatik laurden gitxiagotan urteten dira 3917 lineako autobusak, eta 3927 lineakoak, autobidetik doazanak, eta laurdenetan.



Autobusa Artean.

## IGORRE

# Presoen aldeko bilgunea sortu da

Egin Dezagun Bidea ekimenaren Igorre mailako bilgunea aurkeztu eben, urtailaren 4ean, Kultur Etxean.

### Erredakzinoa

Taldearen izenean, Ainhoa Zuluaga eta Ekaitz Aierdik hartu eben berbea. "Igorreko herritar talde bat gara, alkartu eta herri mailako presoen eskubideen aldeko bilgunea bat egitea pentsau dogu. Gure asmoen barri emotera gatoz eta zuen ekarpena eskatzera, bidelagun izateko" esan eben bilguneokoak aurkezpen ekitaldian.

Ondoren, historia egin eta momentu honetako egorearen barri emon eben Zuluagak eta Aierdik. "Kartzela eta beragaz lotutako eskubide urraketak presente egon dira herri honen historian. Momentu honetan, errepresalio politiko bakarra dogu Igorren, Picassenten preso dagoan Eduardo Perez de Anuzita, kartzelan 17 urte daroazana. Arratiari begiratuta, hor dagoz Iñaki Bilbao eta Tomas Linaza lemoaztarak, lehenengoa Zueran preso eta bigarrena Cabo Verden, deportauta. Hori guztia Ana Petralanda dimoztarra ahaztu barik".

### Egin Dezagun Bidearen manifestuagaz bat

Igorreko presoen eskubideen alde-



Egin Dezagun Bidea ekimeneko partaideak aurkezpenaren ostean.

ko bilguneak Egin Dezagun Bidea ekimenaren manifestua "onartu eta bere egin" eban, jagokonari hurrengo neurriak hartzeako eskatuz:

1- Euskal presoak Euskal Herrira ekartea.

2- Espainiar estadian ezarten dan 197/06 doktrina bertan beheira ixtea, eta zigorra bete daben presoak askatzea. Hau da, bizi osorako espetxe zigorrak amaitutea.

3- Frantziar estadian ezarten dan bizi osorako zigorra bertan beheira ixtea, baldintzapeko askatasunari bide emonda.

4- Zigorren hiru laurdenak bete dabezan presoak kaleratzea.

5- Gaixotasun larriak daukiezan presoak askatzea, eta bestelako gaixotasunak daukiezan presoen zaintza egokirako beharrezko neurriak hartzea.

6- Zabaldu dan sasoi barrian gatzkearen soluzino bidean modu positiboan eragiteko frantziar eta espainiar estadiak darabilen espetxe politika konponbide gakoetan ezartzea.

### Egindakoa eta egitekoa

Gero, orain arte egindako lana errekonozidu eben bilguneokoak eta

mobilizazioetan parte hartzerako deia egin eben. "Amnistia al-deko mugimenduak eta Etxerat-ek urte askoan egin dabe behar; urte askotako mobilizazioak izan dira, azken barikuetakoak barru. Igorreko udaletxean be abenduan mozino bi onartu ziran, bata Bilduk aurkeztuta eta bestea EAJk; Mankomunitatean be abenduan mozino bi onartu ziran, bata Bilduk aurkeztuta eta bestea EAJk eta bagilean Euskal Herri mailan martxan ipini zan Egin Dezagun Bidea ekimena eta beste hamaika" aitatu zituen.

Azkenik, dei egin eutseen igorretzarrai azken barikuetako mobilizazioetan parte hartzeako eta etxeko balkoietan euskal presoen aldeko ikurra ipinteko.

### Arratiako aurkezpena

"Mobimentu barria sortzera goaz" lelodun inbitazinoagaz, Arratiako aurkezpena be burutu zan hilaren 13an, Igorreko Kultur Etxean. Egin Dezagun Bidearen ekimen hau, mobimentu barriaren sorreraren abiapuntu moduan hartu zan. Horrez gain, urtailaren 7ko manifestazio "Kolosala"ren helburu diran manifestuaren puntuak be gogora ekarri ebezan. "Dan-danak beharrezkoak badira be" gaixotasun larriak daukiezan presoak askatzearena nabarmendu gura izan eben. Bestalde, hil honen 25ean Durango ospatuko dan Kalera Rock aitatu eban hizlariak, alkartasuna helburu daukan dinamika kultural eta musikal honetarako konbitea luzatuz.

## ARTEA

**Aurrekontuak egiteko herritarren ekarpenak jaso ditu Udalak****Erredakzinoa**

Etxe guztietara galdetegi bat bialduz jakin gura izan dau Arteako Udalak zeintzuk diran herritarren beharrian eta lehentasunak. Galdetegian, auzo bakotxean edota herrigunean ze hobetu leitekean, zeintzuk diran gazteen zein edadeko beharrianak, kultura arloa zelan bultzatu edota udal informazioa herritarrai heltzean jakien itauntzen zan. Udaletxekoak sano pozik agertu dira galdetegiak izan dauan harrera ona

eta erantzun mailagaz: "Jentearen parte hartzea %11 izan da. Hori parte hartze handia da, ze lgorren eta beste hainbat lekutan urteak daroez aurrekontu parte hartzaileak egiten eta herritarren %2 inguruk hartzean dau parte" dino Alberto Etxebarria Arteako alkateak.

Erantzun dabenen artean, frontoia amaitutea agertzen da lehentasun moduan. "Gero, auzo bakotxean gauza desbardinak. Baten autoen abiadura murrizteko eskatzen dabe, beste baten

zabor ontzi gehiago edo hurrago ipinteko... Orokorrean, keja gitxi eta ekarpen asko jaso doguz".

Aurrekontuak zezeilaren amaierako prest egongo dirala espero dau alkateak.

**Arteako udaletxea.**

## ARRATIA

**Artean egon ostean lgorren da "Arratia Palenque" erakusketea****Erredakzinoa**

Urtailaren lehenengo astean, Arratiako Elizak antolatutako

"Arratia Palenque zubiak eregiten" erakusketea egon da Arteako ludotekan. Erakusketea lehenago Zeanurin egon zan eta ostean urtailaren 10etik aurrera lgorreko Kultur Etxean dago.

Los Riosko misinoa (Ekuador) eta Arratiaren arteko historia honen barri emoten dau erakusketa honek panelen bidez. Orain 64 urte misino hartara joan zan taldea 8 abadek osotuten eben, hareetako hiru arratiarrak. Gaur egungo hango bizimodua be kontetan da erakusketa honetan.

**Erakusketea.**

## ARRATIA

**Ingurumen begiraleak hasi dira dendak bisitetan****Erredakzinoa**

Arratiako Udalen Makomunitateak kontratautako ingurumen begiraleak urtailaren 10ean hasi ziran gure eremuko herrietako

dendak eta tabernak bisitetan, zaborrak bereiztu eta birzikletako ontzietara botaten dituen ikusteko eta birziklapena hobetuteko aholkuak emoteko.

Guztira 400 establezimentu in-

guru bisitauko ditue: dendak eta tabernakaz hasi dira, gero erakunde txanda izango da (eskolak, udaletxeak, kultur etxeak, eta abar) eta azkenik enpresetan egingo dabez bisitok.

Begiraleak binaka joaten dira eta galdera batzuk egiten deusez langilei zaborren kudeaketearen inguruan. Birziklapena errezteko, pegatinak eta koloretako boltsak bananduten dabez, behar danean.

## AREATZA

**Areatzako argazkiak egindako egutegia salgai****Erredakzinoa**

Areatzako Udalak Gabonetan antolatutako argazki lehiaketara aurkeztutako argazki onenak egutegi bat egin dau eta 250 ale ipini ditu salgai euro bateko prezio sinbolikoan. Eroslen, ugerleketako tabernan, Batzokian eta bainuetxean erosi daiteke egutegia. Lehen orrialdean argazki irabazlea (Bekokale) agertuten da, Lur Olabarrik bialdutakoa, eta herria erakusten daben beste 12 argazkik osotuten dabe egutegia.

Lehiaketaren harrera ona ikusita, hurrengo urteetan be antolatzeko asmoa daukie udaletxeok. "Deialdia lehenago aterako dogu, uda partean edo, eta argazki erakusketea eta sari banaketea Gabonetan

izango dira. Aurten, gaia Areatzako udalerria izan da, baina urtero-urtero gai desbardin bat ateratzeko asmoa daukagu: herriko jaiak, errekea, baserriak, euskal jai..." azaldu deutso BEGURI Sara Gutierrez zinegotziak.

**Argazki irabazlea.**

## BEDIA

**Udalak zortzi langabe kontratau dauz garbiketa eta lorezaintza beharretarako****Erredakzinoa**

Bediako Udalak zortzi persona kontratau dauz hile honetan, garbiketaz, instalazioen mantententuz eta lorezaintza-lanez arduratuko dan brigadearen parte izateko.

Behargin barri honeek, danak herrikoak, beharrian hasi dira jada. Sei hilabeterako kontratau egin jakie, Bediako Udalak Lanbideri eskatutako eta Euskadi Planean sartutako diru-laguntzai esker.

Lanbidek aurrekontu-partida

bat bideratzen dau, zerga-pres-tazinerik jasoten ez daben edo diru-sarreraren bermerako errenta jasoten daben personak lanertzeko.

"Krisiak gehien kaltetu dauzan personai benetako aukerea emon gura deutsegu lan egiteko, bai eta dagozan gizarte-beharrianai erantzun be. Garrantzitsua da udal esparrutik ahal dan guztia egitea, gure herrietako langabeai lana emoteko eta persona horreek babesteko", adierazo dau Aitor Sorriketak Bediako alkateak.



## ARTEA

# Haur Eskolea zabaldu dabe Astuibekoan

Hogeta bat umerentzat lekua euki arren, bost umegaz zabaldu zituan atea Arteako Haur Eskoleak.

### Erredakzinoa

Astuibekoan, eskolatik hur, ipini ditue modulu prefabrikauak "herriko jenteak beharizana eukalako". Udalak lekua, azpiegitura, mantenimentua, ura eta garbiketea ipinten ditu eta Haur Eskolen Partzuergoak irakaslea ipini eta ardurea hartzean dau. Umeak zortzigarren astetik aurrera eroan daitezke eskola honetara.

Arteako Haur Eskoleak gela bi, sukaldea, psikomotrizidade gela eta irakasle gela daukaz. Orain aurrefabrikauetan egon arren, etorkizunean futbol zelaiaren ondoan egingo diran Babes Ofizialeko Etxetako behe solairu baten egongo dala dino Alberto Etxebarria Arteako alkateak. "Etxoten gagoz eskola ondoko lur zati baten Babes Ofizialeko Etxeak egin dagien. Etxe horreetako azpiko solairuan 150 m<sup>2</sup>ko lonja bat daukagu gure izenean ipinita, Jaurilaritzeagaz egindako

hitzarmen bateri esker". Izan be, eskolatik hur ipintea gura eben eskolan ezin zan-eta, eskola eta Haur Eskolako umeak bereiztuta egon behar diralako. "Haur eskolako umeak ikastolara eroateko txarto geunkan, ze sarrera, jolasleku eta komun desbardinak euki

behar dabez. Eskolako goiko alde-  
ra eroan ezker, pasau beharko litzakez beste umeen lekutik eta hori ezin da" dino Etxebarriak.

Arratian Haur Eskola Partzuergoak zazpi haur eskola ditu: Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igo-  
rre, Zeanuri eta Lemoan.



Arteako Haur Eskolea.

# BERBALAGUN

**ZER DA?** **NON?**

Zelan? **ONDO PASAUKO DOT?**

**NORENTZAT DA?** **ZELAN?**

**ZELAN IZANGO DA?**

**ZENBATERO?** **NOR JOANGO DA?**

ASTEAN ORDUBETEZ TALDE TXIKIETAN EUSKERAZ BERBA EGINGO DOZU  
PRACTICARÁS Y HABLARÁS UNA HORA A LA SEMANA EN EUSKERA

EUSKERAZ BERBA EGITEKO ERREZTASUNA LORTUKO DOZU  
CONSEGUIRÁS FACILIDAD PARA COMUNICARTE EN EUSKERA

ARRATIEREA PRAKTIKAIKO DOZU  
PRACTICARÁS EL ARRATIANO

JENTEA EZAGUTUKO DOZU  
CONOCERÁS GENTE

94 631 53 84

eta  
EUSKERAZ BIZIKO ZARA  
VIVIRÁS EN EUSKERA

Instalazio industrialak · Mantenimentu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza  
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

# indar

instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

JOSUNE GOROSPE, AITOR SORRIKETA ETA IÑAKI OLABARRI

## "Zaborrak botatea, dirua botatea da"



Josune Gorospe.

### Erredakzinoa

**Mankomunidadeko aurrekontuak onartu dira eta 2012an diru gitxiago egongo da.**

**J.G.:** Udalak gastuen artean mankomunidadeari ordaindu behar jakona ipini behar dabe, aurreikusi behar dabe. Guk aurtent aurkeztu doguzan aurrekontuak igazkoen aldean % 11ko beherapena izan dau. Aurrekoak be beherapena izan eban.

**I.O.:** Azkenengo sei urteetan udalen aportazioak behera

egin dabe. 1994 urtearen antzeko datuak daukaguz.

**J. G.:** Egoera ekonomikoa holarango da. Mankomunidadearen diru iturriak udalen aportazioak, geuk tasen bitartez hartzean doguna eta jasoten doguzan diru laguntzak dira. Bizi dogun egoera horretan badakigu be gure diru iturri horreek gorantza ez doazena. Orduan, gure asmoa edo helburua aurrekontuak egiterakoan zan zerbitzuak mantentidu eta ahal dan neurrian kudeaketea hobetu kalidadea hobetzeko. Guretzat helburua zerbitzuak

**Indarkeria matxisteari aurre egiteko protokoloa zezeilerako egongo da.**

Mankomunidadearen aurrekontuak igazkoen aldean % 11ko murrizketea izan dabe. Ha ta guzti be, mobimentu handia nabaritzen da mankomunidadearen aldetik, beste kudeaketa bat eginda, lau erronka nagusiri erantzutea espero dabe eta. Langabeziaren kontrako burrukea, hondakinak gitxitzea, efizientzia energetikoa gehitzea eta indarkeria sexisteari aurre egiteko protokoloa ezartea dira mankomunidadearen lehentasunak.

Horretaz, Josune Gorospe Arratiako Udalen Mankomunitateko presidenteak, Aitor Sorriketa, AUMeko presidenteordeak eta Iñaki Olabarri AUMeko gerenteak egin dabe berba luze BEGITUGAZ.

mantenidutea zan aurrekontuak murriztuta.

**Lau erronka horreetatik bi diru iturri moduan planteetan dozuez: hondakinak gitxitzea eta efizientzia energetikoa, hain zuzen be.**

**I.O.:** Azken finean diruak datoz datozan lekuetatik eta zelan izan eraginkorragoak? Zaborra zabortegira botatearren 350.000 euro urtean pagetan dabe arratiarrak, tasen heren bat. Diru hori aurreztuko bagendu, bardintasun teknikariak kontratau eitekezan, berbarako. Efizientzia energetikoak be dirua lortzean lagundu ahal dau. Udalerriak miloe eta piku euro gastetan dabez argindarrean. Udalerri bakotzak ordaindu behar dauan faktura jeistea da gure lan bat.

**A.S.:** Errezena litzateke kontratuak egitea eta udalai faktura pasau, baina gure politikea kontrakoa da: murriztu gastuak, lortu dirua eta orduan kontratuak egin. Aurreztutako diru hori erabili beste gastu bat egiteko.

**Dinozue urtero 350.000 euro pagetan dirala zaborrak botateko. Portzintero, zelan dago Igorreko zaborteziaren kontua? Ekarten dira ondino zaborrak Gipuzkoatik? Zabor**

**bortegia ez da zarratutekoa gitxi barru?**

**I.O.:** Momentuz, jarraituten dabez zaborrak Gipuzkoatik ekarten, hitzarmena hor dago.

**J.G.:** Zezeilera arte.

**I.O.:** Europako zuzentaruak dinoe zaborteziak zarratu egin behar dirala eta transferentzia zentro bihurtu. Aurreikusita dago eta egingo da legeak agintzen dau eta. Aginduta dago zer egin behar dan: prebenidu, berreraibili, berziklatu eta, gehiago ezin danean, balorizazino energetikoa. Eta horretan gabiz.

Zaborteziak desagertu egin behar dira European, sortzean daben kutsadurea handia dalako.

Guk legea beteko dogu, legea gizartea baino askoz harantzago doa honetan. Horretarako jarri dogu martxan prebentzino kanpainia.

**J.G.:** Kontuan be izan behar da ohitura aldaketak ez dirala egun batetik bestera izaten. Eta zaborteziaren kulturea gainditu egin behar dogula baina horrek denporea eta ahalegina behar ditu.

**Kuriosoa da, ze zaborra gauza barria da. Orain urte batzuk baserrietan ez zan zaborrik sortzean. Eta orain arratiar bakotzak 420 kilo**

ellaURI  
HOTELA  
Natura sentitu  
Landa Turismoa  
Enpresa Zentruak  
Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

OPEL  
Ibaigane, S. Coop. Ltda.  
EuzkoAra, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Telefono: 631 33 30 - 631 31 31  
Fax: 631 36 15

K Kendall Languages  
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpene Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz  
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea  
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com





Arratiak Bizkaiak baino gitxiago birziklatzen dau.

**sortzean ditu.**

**J.G.:** Eta hortik %77 zabortegira.

**I.O.:** Bai %23 bakarrik birziklatzen dogu eta guk eroan gura dogu Arratia %30era.

**J.G.:** Jenteak jakin behar dau zaborra botaten dauanean eta txarto botaten dauanean dirua botaten dagoala. Diruz betetako boltsa bat.

**I.O.:** Egia da. Beira dana birziklatzen da. Sei aldiz edo. Papela be dana birziklatzen da. Tona bat papel zabortegira botateak 85 euro inguru balio dau. Tona hori eroaten bada bere edukiontzira, ingresoak sortzean ditu, beste 80 euro inguru. Jeitsi egin da pixka bat, baina papela eta kartoa erdia baino gehiago botaten da zabortegira. Hau da, diru pilo bat botaten da zabortegira.

**Hamazazpi persona kontrata dozue, gehienak hondakin gitxiago sortzeako eta birziklapena sustatzeko.**

**J.G.:** Lanbidek emondako diru laguntzeagaz. Orain 17 persona hartu dira, diru laguntza hori eskatu zan martian, etorri jakun diru laguntzea emoten jakunaren ebazpena zemendian eta abenduan atera genduan prensa ohar hori jentea enteretako eta galapan egin genduan.

**Zelan planteetan dozue langabeziaren kontrako burrukea?**

**J.G.:** Lanbidegaz batera ekin behar dogu. Zerbitzu sozialak eta lanerako prestakuntzea lotuta egon behar dira. Bide horretatik joango gara. Hemen puntu bat eukitea langabezia dagoan jenteak informazioa eukiteko eskatuko deusagu Lanbideri.

**Arratiako langabezi tasa**

%10,8 da.

**Europan zabortegiak**

**desagertu egin behar**

**dira.**

Gizarte zerbitzuen legeak dino bere helburuen artean eta bere zutabeen artean hurbiltasuna dagoala eta guk be hurbiltasun hori eskatzen dogu.

Beste alde batetik, eskatuko dogu zentro bat egon daitela eskualdean titulazinoa, formazinoa edota kualifikazinoak emoteko. Ez bakarrik heziketa prozesu arautuetan, arautu ez diranetan be bai. Eta egon gara aztertzen zer egin behar dan hezkuntzan emoten diran ziklo arautuak egokitu daitezcan benetan dagozan beharizanetara. Lan egingo dogu enpresa munduagaz, eza-gutzeko zeintzuk diran beharizanak, eta Foru Aldundikoakaz be eskatu dogu bilera bat enpresak ipinteko eta lanpostuak sortzeako ze diru laguntza egongo diran jakiteko. Egin dogun lehengo apostua izan da langabezian egoazan 17 persona hartu, baina orain hasiko gara jada eragile sozial guztiakaz lanean, danok batera egin daigun.

**I.O.:** hurrengo urteetan lanpostu pilo galduko da merkataritzan. Guk landu behar dogu enpresakaz norantza eroango dituen negozio barriak eta saiatu horregaz buztartzen formakuntza baliabideak.

**Arratiako langabezi tasa zein da?**

**I.O.:** Bizkaiko mailan gagoz. 820 persona %10,8 bataz beste.

**J.G.:** Zulaibarkoak esan dabe 2003ko langabezi tasan gagozala. Orduan neurriak hartu behar dira ze nahiz eta oso egoera txarra izan ez, egoera txar-txarrera heldu baino lehen hartu behar dira neurriak.

**Zelan doa indarkeria sexisteari aurre egiteko protokoloa? Noizko egongo da eta nortzuk dabiz egiten?**

**J.G.:** Zezeilerako egongo da eta Murgibe dago egiten, Arratiako herri batzuetan, Diman eta Bedian, barbarako Bardintasun Planak egin dituenak.

**Indarkeria prebeniduteko bardintasuna ezinbestekoa da, baina 17 persona kontrata arren, ez dozue bardintasun tekniaririk kontrata.**

**I.O.:** Eskatu genduzan diru laguntza batzuk lanpostu batzuetarako, baina eskatu genduan erdia emon euskuen.

Laguntzak emoteko, baldintza batzuk dagoz eta baldintza horreetako bat da lanpostu hori ez existidutea. Baina udal batzuek badaukie edo euki izan dabe bardintasun teknikaria.

Aurrekontuetan diru partida bat ipini dogu bardintasun politikak bultzatzeko, 50.000 euro inguru. Genero indarkeriaren kontuan edo bardintasun inguruan, udalerrri batzuek badaukie jada planen bat eta beste batzuek ezta planik be. Orduan 13.000 biztanleko eskualde baten beharrezkoa da gitxienez udalerrri guztietan plan bat izatea, dagozan plan horreek danontzat izateko. Gero hau praktikara eroateko ekinbide batzuk egin behar dira, beharrezkoa daukagu persona bat kontratetea, bestela ezin dogu aurrera eroan.

**A.S.:** Nire ustez gauza bat garrantzitsua da eta horregaitik ipini dogu aurrekontuetan bardintasun teknikari bat kontratetako diru partida hori. Lanbideren diru laguntzeagaz egin izan bagendu bakarrik sei hilerako izango litzateke eta gero akabo. Egin dogun moduan urte osorako da.

**expert**  **ARRATIA**

E posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

tel. 94 673 60 55 • e-mail: info@arawotz.com

**ARA W OTZ**

Lanbidea O Jabetzea!

Parro Ugarana 2. et. - ADRI Dena - Polaketa www.arawotz.com

**GALANTA**

Banatik janzteko  
Zugandik saro hurbil

**Merkealdia**

Lehendakari Agirre 23, Igoerre  
Telefona: 94 631 90 08

**FUTBOLA**

# Lemoako jokalaria ez dabe euro bat be ikusi

Kirol arloan txarra da Lemoaren egoera, baina ondino txarragoa arlo ekonomikoan.

**Maialen Egileor**

Denporaldia hasi zanetik, jokalaria ez dabe kobrau. Batez beste, 1.500 eurokoa da Arlonagusiko futbolariaren soldatea, eta antza, klubak 150.000 euroko zorra dauka eurekatz. Holan ba, batzuek kontratua bertan behera itxi eta beste talde batera joan gura dabe.

Jokalaria bizi daben egoera larria ezagutera emon gura izan dabe. Prensan, irratan eta telebistan agertu dira Jose Luis Ordeñana "Mitxi"ri presinoa egiteko. Presidenteak, baina, beste batzuei bota deutse errua. Berak dino denporaldi honetan Cementos Lemonak eta Udalak ez dabela euren patrozinioa ordaindu eta hortik datozala klubaren arazo ekonomikoak.

Lemoako Udalak, barriz, prentsa ohar baten bidez argi itxi gura izan dau 2011 urtean S.D. Lemonari egin beharreko aportazio ekonomiko osorik ordaindu deustala, 2011ko aurrekontuetan aurreikusitako diru kopurua azkenengo zentimorarte ordainduz. Gainera, Lemoako Udala 2012ko aurrekontuetan lanean dabilela eta bertan herriko kirol elkartei ekonomikoki laguntzea berrabiaraztu dala adieraztu dabe.

Udalekoak herriko taldeak laguntzen eta euren alde lan egiten jarraituko dabela be esan dabe.

Hori bera esan eutseen alkatuek eta udaleko ordezkariak Lemoako jokalariai pasa dan astean egin eben batzarrean. Zuzendaritza-batzordea be bilerara deituta egon zan, baina presidentea ez zan agertu. Bere jarreara ikusita eta Udalaren azalpenak entzunda, jokalariai konfiantza osoa galdu dabe "Mitxi"rengan.

Jokalaria, gainera, Udalarik eskertutako deustie 2012ko diru-laguntzea aurreratutako egiten dabilen ahalegina. Normalean epe bitan egiten dan aportazioa, martian eta urrian, epe bakarrean egingo da seguruenik, hil honen amaieran edo hurrengoaren hasieran.

Hori bai, Udalak diru hori emon aurretik, jakin gura dau benetan jokalarientzat eta klubeko langileentzat izango dana.

Horregaitik, jokalariai garden-tasuna eskatuten deustie. Eurek dinoe oin gutxi 12.000 euro sartu dirala klubean, baina ez dakiela diru horregaz zer pasau dan. Jokalaria ez dabe euro bat be ikusi eta Urko Veraren fitxarean salmentatik ateratako dirua be ez dakie non dagoan.

Gauzak holan, ezohiko batzarrak egitea eskatu deustie presidenteari. Kontuak argitzea gura dabe eta zor deustien diru guztia ordaindutea. Ez badau hori egiten arazoak biderkatu egingo dira eta Lemoaren etorkizuna arrisku larrian egongo da.



Lemoako jokalariai prentsaurrekoa ematen.

**PELOTEA**

Neska mutikoak Titin III, Beroiz, Olaizola I eta Merino II agaz.

## Lemoako pelota eskolakoak puntako pelotariak egon ziran

**Erredakzioa**

Eskupelota taldeak antolatuta Gabonetako pelota astea ospatu zan Lemoan abenduaren azken astean. Guztira 50 bat neska-mutikok hartu eben parte eta antolatzaileak balorazio positiboa egiten dabe, neska-mutikoak pelotearen munduan murgiltzea eta kirol honen inguruan hausnarketa zabalagoa egiteko helburuak bete diralakoan.

Tailerrak, pelota partiduak... baina ekintzarik arrakastatsuen Miribillako (Bilbo) frontoi barrira bisiteta izan zan. "Bertara 18 bat neska-mutiko agertu ziran eta frontoia ikusteaz gain sorpresatxo bat euki eben. Kasualidadez egun horretan lehenengo mailako binakako txapelketako material aukeraketa egon zan eta neska-mutikoak Aimar Olaizola, Titin III Merino II eta Beroiz pelotariak

berba egin eta argazkiak atera ahal izan ebezan" azaldu deutso BEGURI Aitor Erauzkin antolatzaileak.

Bezperan, pelotak eta takoak zelan egiten diran ikasten 35 ume inguru egon ziran Lemoako frontoian. Eguenean, barriz, "Aritz Laskurainen bisiteta espero genduan baina azkenengo momentuko arazoak zirala eta ezin izan eban etorri eta horren ordez jolas entrenamentu bat egin genduan" dino Erauzkinek.

**Hobetutako asmoa**

Hain balorazio ona eginda datorren urtean be pelota astea antolatutako asmoa agertu dabe antolatzaileak, baina gauza batzuk aldatu beharra ikusten dabe. "Akaso, gabonetako bigarren astera pasauko dogu, lehenengo astean neska-mutikoak pilo bat ekintza ditue eta".

**Umeen moda 0-20 urte**

- Botoli
- Ray
- Aranda
- Akur
- Quisber
- Arantzia
- Gantelak
- Ite
- Hassan

**sein**

LEHENDAKARI AGAZRE, 27 • 946 319 296  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**

TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ

Balantziak: A1, A, B1, B2

Lehendakari Agazre 31  
Telefono: 94 673 71 32  
48142 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vodafone.net

**AKESOLO, S.A.**

GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE BIZKAIA

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**

Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 • Mug. 647405115

**BIXER TABERNA**

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**axular**  
kultur elkarte

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indars@indars.es • www.indars.es

**AKEITEGIA**

**GAY & LORA**

**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

**San Miguel**

Ardoak Edariak

94 673 64 02 • Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DOKU KONTSULTAN  
ONDARUN HIGUZZINEN  
ASBUKURTAN

Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

**Jose Luis Corbacho**

**pintura lanak**

Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**ekin s.a.**

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: c.ekin@telefonica.net

**Pinturas Anatia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992

## PELOTEA

# Arratia-Nerbioi finalerdietara heltzean

### Erredakzinoa

Aurrera doa Arratia-Nerbioi esku-pelota eskolen txapelketea eta laster finalerdiak hasiko dira jokatu-tuten. E txapelketearenak (lehen A txapelketea) izango dira lehenengoak eta Zeanurin jokatu-

dira hilaren 21ean. Zezeilaren 12an izango da bigarrena Zarata-mon eta finala 18an Orozkon.

B txapelketearen finala gurean izango da Areatzan zezeilaren 11n hain zuzen be. Finalerdiak, barriz, Zornotzan hilaren 28an eta Usansolon 29an izango dira.

## FUTBOLA

# Arratiarrak goi-goian, Lemoa behe-behean

### Maialen Egileor

Arratiako neskak eta mutilak lider jarraituten dabe. Neskak 0-1 irabazi dabe azken partiduan Pauldarrak taldearen kontra eta lehenengo dira sailkapenean 35 puntugaz. Mutilak bana bardindu dabe Artibairen aurka eta lehenengo dira be 42 puntugaz.

Lemoaren egoera sano desbardina da. Federazio Kopan final zortzirenetara heldu da eta lehenengo partidua irabazi egin

deutso 1-0 Zornotzari. Baina ligan azkenaurreko da sailkapenean. Bigarren buelta, gainera, arerio zuzen baten kontra galduten hasi dau. Hain zuzen be, Palentziaren aurka galdu dau 2-0. Partiduak aurrera doaz eta Lemoak 12 puntugaz segiduten dau, salbazinotik 8 puntura. Jentea hasi da daborduko kontuak ateraten eta bigarren buelta honetan 30 puntu lortu behar dauz taldeak, hirugarren mailara ez bajatuteko.



Lemoako futbol taldeak urrian jokatu eban partidu bat.

## MENDIA

# Zeberioako mendi talde barriak lehenengo mendi urteerea egin dau

### Erredakzinoa

Austari Mendi Taldeak bere lehenengo urteerea egin eban urtailaren 15ean. Talde barriak 100 bazkide inguru ditu eta, momentuz, hilean urteera bat antolatuko dabe. Lehenengo Eibar aldera izan zan eta Urko (793 m.) Akondia (749 m.) eta Kalamua (768 m.) mendien tontorak zapaldu zituen Zeberioako mendizaleak.

Lehenengo urteera honetan 80 mendizale baino gehiagok hartu eben parte. Goizeko zazpi eta erdietan autobus bi urten ziran Zeberiotik Eibarrerantz eta han Arratetik abiatuta ibilbide bi egiteko aukerea egon zan: Arrate-Usartza-Arrate edo Arrate-Kalamua-Akondia-Urko-Arrate.

"Sano giro ona eta anitza egon zan; ume, gazte eta helduak, mendizale gazteena 3 hileko mutikoa izan da" dino Iker Mendiola Austarri mendi taldekoak.



Austarrik egindako lehen urteerea.

## ERRUGBIA

# Urte barria eta fase barria

### Ainhoa Duñabeitia

Urte barriagaz batera fase barri baten sartu dira Zekorrek. Denporaldiaren lehen fasea emoitza onakaz amaitu eben, 1. postuan hain zuzen be. Hori dala eta iguera faserara heldu dira.

Iguera faseak honetan datza; emoitza onak lortu ezker hurrengo denporaldian kategoria altuago baten jokatueteo aukerea izango dabela. Sei talde dagoz fase barri honetan burrukan: Elorrio Parra Taberna, R.C. Rioja Sport Tavern, Univ. Bilbao Rugby A, Zaisa Irun RT, Getxo Artea RT B eta Arratiko Zekorrek RT. Fase barri honen lehen partidua jokatu dira. Urtilaren 7an hasi zi-

ran, Arratikoak Irunen aurka jokatu eben; emoitza ez zan bat be ona izan. 16-7 galdu eben Zaisa Irun Rugby Taldeak puntuak lortuz.

Hurrengo astegoienean, barriz, itzel ibili ziran arratiarrak, bigarren partidu honetan Getxo Arteako bigarren taldearen kontra jokatu eben. San Txisme errugbi zelaiko



Arratiko Zekorrek eta Getxo Artearen arteko partidua.

### Ekintzen egutegia

Aurtengo ekintzen egutegia onartuta daukie mendi taldekoak. Orientazioa, eskalada ikastaroak eta espeleologia dira bazkideak egin ahal izango dituen ekintzetako batzuk.

Mendi taldekoak Zeberioko udaletxeko lokaletan egongo dira eguenetan 20:00etatik 21:00etara hartu-emonetarako, eta hurrengo urteerea, zezeilaren 12an izango da Trianoko mendietara.

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrek@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatze sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbiztuak eta mantentze lanak

Igorriko Industriales, Pab. 07  
Tel. Fax: 94 673 62 76  
619 736 616  
48143 Igore Bikoia

**Gure Ikastetxeak**

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

## FANZINEA

## Musika fanzinea sortu da Lemoan

*Runtogether* fanzinearen 0 zenbakia atera dau Pablo Rodriguez lemoztarrak, Ruben Garzia eta Asier Elorz koadrilako lagun laguntasunagaz.

## Erredakzioa

Euskeraz eta gaztelaniaz dago eta *punk, rock, oi, ska* eta *reggae* estiloak jorratzen ditu. Zenbaki honen 50 kopia egin ditu Rodriguezek doban bananduteko. Hurrengo ez dira doban izango. Egilearen asmoa urtean behin fanzine bat ateratea da, merke eta eduki gehiagaz.

Arratia eta mundu osoko musika jorratzen da fanzine honetan, beti be estilo jakin batzuetako. Zenbaki honetan Arratiako Materia Gris eta Bidean Galduta eta Abadiño Kruders taldeai alkarrizketak dagoz, B.C. Bombs eta Awaking the North taldeen aurkezpen artikulua eta *skinhead reggae* estiloa aurkezteko beste artikulua bat. *Do you remember 1969?* Artikulua, barriz, Alacant-eko kolaboratzaileak egin dabe. Kanta batzuen letrak, fanzinean agertzen diran taldeen *Top 10a* eta Arrasateko festibalaren kronika be irakurri daiegun agerkarian.

"Fanzinaren helburua gustetan jatan musikearen gainean berba egitea da, estilo musikal batzuk ezagutzera emotea eta jentea irakurtera bultzatzea. Nire munduan ibili naz fanzine hau egiten. Orain mundura bajatu eta lan egin beharko dot" dino Pablo Rodriguezek.

## Lemoa Tudeik agur esan eban igaz

Harriketarrak Gazte Asanbladak argitaratzen eban Lemoa Tudeik, barriz, agur esan eban igazko LTren jaian, abenduaren 28an. 2004an


sortua, informazio orokorreko agerkari honek 30 zenbakitik gora atera zituan, zuri biltzean eta fotokopietan. Gazte Asanbladako arabera "bere zikloa bete ebalako" zarratu eben agerkaria.



Pablo Rodriguez.

## INTERNET

## Arlanpeko kobearen barri wikipedian jakin daiteke



Arlanpeko kobea.

## Erredakzioa

Sasoi baten telebistan agertzen ez zana, ez zala esaten zan; gaur egun sarean egon behar da izateko. Igazko abendutik Arlanpeko kobearen gaineko artikulua bat dago wikipedian, [http://es.wikipedia.org/wiki/Cueva\\_de\\_Arlanpe](http://es.wikipedia.org/wiki/Cueva_de_Arlanpe) helbidean. Hori bai, artikulua gaztelaniaz dago.

Dana dala, Elhuyar Fundazioa eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, euskerazko 110.000 sarrera baino gehiago sartu zituen wikipedian abenduaren 29an. Berriak jakitera emon ebanaren arabera, sarrera horretatik 8.500 eduki barriak dira eta gainontzekoak sortuta dagozan inofmazioen eguneraketak.

Euskeraz Axlora, Baltzola, Gorbeia, Urkiola eta gure inguruetakoin hainbat lekutako barri irakurri daiteke sareko entziklopedian.

## BERTSO SAIOA

## Mañukorta eta Zeberio bertsoan Diman



## Kartela.

## Erredakzioa

Bertso afaria antolatu dau Dimako Bertso Eskolak urtailaren 21erako. Artaungo Aspuru jatean izango da bederatziretan, eta Mañukorta eta Zeberio bertsoari beteranoak botako dabez bertsoak afarian.

Saioa modu librean hasiko dan arren, gero Ibon Iza bertso eskolakoak jardungo dau gai jartzaile lanetan. "Orain dala hiru urte hasi ginan honetan. Dimako Bertso Eskolak eta Aspuru jateak antolatuten dogu Artaungo San Bixenti jaiak dirala eta" azaldu deutso BEGITURI Ibon Iza antolatzaileetako batek.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban**

**Egin zaitetz zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

 35€

 55€

 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkarte, Herriko plaza 24, 48142 Artea

**bbk**



## BERTSO SAIOA



Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapelduna.

## Goi mailako bertso saioa Zeanurin

### Erredakzinoa

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza egongo dira Zeanuriko frontoian, hilaren 22an arrastiko 18:00etan goi mailako bertso saioa hurreratzeko. Gai jarzailea Eñaut Intxaurrea izango da. Zeanuriko bertso eskoleak

antolatutako bertso saio hau urtero, Udalaren laguntzeagaz.

Orain dala zazpi urte hasi ziran bertso eskolakoak urtailaren hirugarren astean bertso saio bat antolatutako eta puntako bertsolariak hartzean dabe parte bertan. Aurtengo partaide guztiak Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalera heldu dira inoz eta Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio Euskal Herriko txapela jantzi dabe.

Igaz, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maia egongo ziran gurean eta aurtengo hartuko dabe parte barriro bertso saio honetan.

## AKKT

## Kirola eta baba jana AKKT egunean

### Erredakzinoa

Arteko Kirol Kultur eta Euskera Taldeak alkartearen eguna ospatuko dau hilaren 28an. Egun osorako egitaraua antolatu dau AKKTk, ekintzetako batzuk oraindino guztiz zehaztuta egon ez arren. Jai eguna hasteko kirola eta amaitutako kontzertua (hau oraindino konfirmatu barik dago), tartean baba jana bazkari herrikoian.

### Egitaraua

- 12:00etan, Frontenis finala.
- 13:00etan, Trikipoteoa.
- 14:00etan, Babagorri lapiko lehiaketea.
- 14:30ean, Bazkari herrikoia.
- 20:00etan, Rock&Roll Jose Manu-gaz ludotekan (konfirmatu barik).

### Aisialdiko ekintzak antolatutako alkarteak

AKKTko partaideen eretzian, Artean beti landu dira kirola eta kultura eta asko dira herri honetako musikariak, idazleak, kirolariak eta abar "baina honen maila altuan ibiltzen ez diranak kirola eta kultur ekintzakaz izugarri gozatuten dabenak nagusi gara gure herrian" diote. Horregaitik sortu zan Arteko Kirol Kultur eta Euskera taldea, aisialdian egiteko ekintzak antolatutako.

Taldeak antolatutako azken ekintzen artean, Frontenis Txapelketa dago. Txapelketan 12 bikotek hartu dabe parte eta finala AKKT egunean jokatu da. Mendi martxak, orientazio lasterketak, berbaldiak, antzerkia, kontzertuak eta erakusketak antolatutako ditue AKKTkoak.



Igazko Auzorik Auzo ibilaldiko irudi bat.

## IKASTAROAK

## Igorreko Kultur Etxeko ikastaroetan izena emoteko epea zabalik



### Ikastaroak.

### Erredakzinoa

Igorreko Kultur Etxeak urtailetik martira arte eskeintzen dituan ikastaroetarako izena emoteko epea zabalik dago oraindino. Talde batzuk martxan hasita dagozan arren beste batzuk osotutako dagoz. Honeek dira eskeintzen diran ikastaroak: Helduentzako antzerkigintza, Tai-Chi, Argazkigintza, Dantza afrikarrak, Literatura, Photoshop (oinarizkoak), Umeentzako zirko ikastaroa (akrobazia aereoak) eta saskigintza (gaztelaraz). Informazio gehiago Kultur Etxean bertan emoten dabe ikastaroren baten izena emon gura izan ezkerok.

## DUNBA

## A. Zulaibar LI Arratiako prestakuntzearen alde

### Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko ikasleak

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia elizbarrutiko ikastetxea eta Euskal Herriko Heziketa Tekniko Elkarte (HETEL) kidea da.

Lanbide heziketako hiru azpizistemak (Arautua, Lanekoa, eta Etenbakoa) eskeintzen dauz.

Teknologia barriak, metodologiak, irakasleen prestakuntzak, kalidade prozesuak, ingurumenaren babesak... Zulaibar zentro garaikidea izatea egiten dabe. A. Zulaibar LIk emoten dauzan ikasketak, mekanizazioa, elektrizitatea eta haur hezkuntza espezialitateetan, honeek dira:

- Prestakuntza Arautuan: Lanbide Heziketako Erdi eta Goi Mailako Zikloak eta Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak



Zulaibar Lanbide Ikastegia

(PCPI).

- Prestakuntza Ez Arautuan:

Lanerako Prestakuntza. (lan-gabezia dagozanentzat) eta Etenbako Prestakuntza (lanean dagozanak birzikletako).



- Goi Mailako sarbide frogarako ikastaroa be eskeintzen da.

Aurtengo garatuko diran proiektuen artean "Inguruko prestakuntzearen beharizanak" proiektua nabarmentzen da. Proiektu honetan enpresen prestakuntza beharizanak eta langileen kualifikazioaren egoera aztertu ondoren prestakuntza ibilbide bat eskeiniko jakie oinarizko kualifikazioa lortutako asmotan.

Fabrikazio mekanikoan Lanbide Heziketako ikastetxeen artean motor pneumatiko baten proiektua garatuko da.

A. Zulaibar LIk lan boltsa bat be badauka enpresen eta lana aurkitzen dagozanen personeren artean bitartekotza eginik parte bien beharizanak asetzeko eta hartu-emonak errezeko helburuagaz.

## AGENDEA

### URTAILAK 18

#### BEDIA

17:00etatik 19:00etara, tailerra: egurrezko animaliak. Liburutegian.

#### IGORRE

10:00etatik 20:45era, hilaren 31ra arte, "Arratia-Palenque zubiak eregiten" erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan.

#### LEMOA

Hilaren 26ra arte, ehoziri lanak egiteko ikastaroan izena emoteko epea.

### URTAILAK 20

#### AREATZA

22:30ean, The Reverendos taldearen kontzertua Bixer tabernan.

#### BEDIA

18:00etan, udaletxe ondoan eski urteera Baqueirara domekara (hilak 22) arte.

#### IGORRE

18:00etan, Arratiako emakumeen alkarteen batzarra Kultur Etxean.

#### LEMOA

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldearen Asanblada Orokorra. Jubiladuen eteko lokalean.

### URTAILAK 21

#### DIMA

21:00etan, bertso afaria Aspuru jatetxean (Artaun). Mañukorta eta Zeberio. Gai jartzailea: Ibon Iza.

### URTAILAK 22

#### IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Kika superbruja: el viaje a Mandolan*.

19:30ean, zinea *La saga crepúsculo: Amanecer (parte I)* Lasarte Aretoan.

#### ZEANURI

18:00etan, bertso saioa frontoian. Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Eñaut Intxaurraga.

### URTAILAK 26

#### ARTEA

AKKTren Bazkideen Batzar Orokorra. Kultur Etxean.

### URTAILAK 27

#### IGORRE

19:30ean, azken barikua, presoen aldeko kontzentrazioa.

#### LEMOA

16:30etik 19:30era, Lemoako Haur eta Gazteen XI. Ipuin Lehiaketan parte hartzeako epea amaituko da. Liburutegian.

### URTAILAK 28

#### ARTEA

AKKT Eguna. (Ikusi egitaraua 13. orrialdean).

#### IGORRE

22:00etan, zinea *Un metodo peligroso* Lasarte Aretoan.

### URTAILAK 29

#### IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Vicky el vikingo y el martillo de Thor* (euskeraz).

19:30ean, zinea *Un metodo peligroso* Lasarte Aretoan.



## Wilt, panpina puzgarriaren hilketak 21ean Igorren

*Wilt*, Tom Sharpe autore ingelesaren lana datorren urtailaren 21ean izango da Igorreko Lasarte Aretoan, gaueko 20:00etan, Ados Teatroak produzidutako eta Garbi Losadak zuzendutako antzezlan gisa.

Henry Wilt, lan honetako protagonista, itxaropena galdu dauan gizona da. Arte eta Lanbide Eskola baten dabil literatura irakasle, bape be interesik ez daukien igeltsero, iturgin edo argiketari-gaiakaz. Andre-agaz be ez da zoriontsu. Aspaldi ez dau Eva jasaten, andra heldubako eta txepela.

Baina Wilték ihesbidea dauka: egunero, txakurra paseau bitartean, andrea hiltzeko eta gorpua desagerrazotzeko modu ugari asmatzeari ekiten deuto.

Denpora-pasa "inuzente" hori gorabehera, ez dirudi bere bizitzan ezer aldatuko danik, andreak bikote iparamerikar bat ezagutu eta horreek Wiltarrak jai batera konbidau arte. Bertan gorabehera batzuk gertatuko dira, panpina puzgarri baten agerpena tartean, zeinegaz Wilt ustekabea harrapatuko daben.

Antzele beharretan izen handiko aktoreak egongo dira, Mikel Laskurain, Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, edo Miren Gojenola besteak beste.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

#### ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m<sup>2</sup>ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

#### ROMER DUO PLUS-ISOFIX SALGAI

Grupo 1 (9/18 Kg). 2. eskuko autorako umeen segurtasun aulkia. Grisa/baltza. 200 €. Egoera oso ona (merkaduan 400 €). 626 385 581.

### DANERIK

#### APARTAMENTUA ALOKAIRUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, asteburu zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

#### AURRESKUA IKASI GURA DOT

Aurreskuaren Kontrapasa ikasteko eskolak hartzea gura dodaz. Zapatu

arrasti edo domekan izan beharko litzateke. Nonor eskolak emoteko prest badago, honako telefono-zenbaki honetara deitzea dauka: 659 059 194.

#### GARAJEA ALOKAIRUAN

Igorreko Bidebarri kalean 6-7 zenbakietan garajea alokairuan. Interesdunak deitu: 615 731 182 telefonora.

#### ESKOLAK EMOTEN DODAZ

DBHko, Batxilergoko (ikasgai guztiak) eta Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoko eskolak emoten dira. Deitu 659 729 398 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com)-era. Mezuak doan dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Wilt, panpina puzgarriaren hilketak antzezlanerako*.

Leire Amuriza (Otxandio)  
Gillemo Carreño (Bilbo)



**2** Zeanuriko Udalak emondako bina sarrera bertso saiorako.


Miren Atutxa (Igorre)  
Iratxe Etxebarria (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Zemendi. Azken letra. 2.- Gora joan. Begiak itxita. 3.- Txirixiriaren kantuen onomatopeia. Birritan, urak irakiten dauanean. 4.- Bokala. Ahuntzaren ar. 5.- Entregau. Mila erromatar. 6.- Ames egin. 7.- Txinako budismoaren joera. Errepetiduta, bihotzaren taupadearen onomatopeia. 8.- Umeen berbetan, mosua. Eguna. 9.- Erdiko bokala. Ubide.

### GOITIK BEHERA

1.- Hitano. Behe. 2.- Jazoera. Arra ez dana. 3.- Eromen. Letra bat. 4.- Indioaren sinbologia. Greziako ugarte. Izan aditz jokoa. 5.- Berrogeta hamar erromatar. Egiantan. 6.- Laprast eginda garraiatzen dan enbor. Umeen berbetan, umezaina. 7.- Ordaindu barik dagoana. Argal, mehe.



Topau gabonetako jaiotza baten egoten diran zazpi irudi.



# AKI MI KO

Aitziber



Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea

Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
**94 631 73 14 eta  
649 979 112**

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)



**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karnela eskolaraz zain erdiaraz

Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: undaA@euskalnet.net

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igore  
94 631 52 26

*Los Chopos*  
neurriera egindako armairuak

Anda, Los Chopos, 35 (Nagat) Tel.: 94 430 40 94

**Esposizinoa eta  
fabrikea Lemoan**

Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
[www.armariosloschopos.com](http://www.armariosloschopos.com)

**begitu**  
amalia ubide zerbeto

\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**

Roberto eta Rosana

Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
# 94 631 92 00



E. Agirre, 7.  
48120 Igore (Bizkaia) Tfnoa: 94 632 64 78

**INCOESA**

Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia



**Bar Restaurante  
Montero**

**Eguneko menua**  
euskal sukaldaritza,  
sukaldaritza bolibiarra  
eta brasildarra

Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

## PEDRO KORTAZAR

**"Gehiena ez, dana dauka hemen erosi gura dauanak"**

Dia dendea dauka Pedro Kortazarrek Igorren. Lan orduetatik kanpo saltokiko atzeko atea zabaldu deutso BEGITURI, umoretsu eta baikor. AMEko lehendakaria be bada igorretarra. Alkartea bera, komertzio txikien egoerea, krisia, etorkizuna... danetarik berba egin dogu beragaz. Denda txikien aldeko apostua aspaldi egin eban, eta Arratian esaten dan lez ekina baragarria ei da.

Irati Urien

**kien egoerea?**

Orokorrean ez dago ondo. Baina hemen gauza asko egiten doguz AME moduan, herritarak hemen erosteko.

**Zelan antolatuten zarie Arratiako Merkatarien Elkartean?**

Astero batzar bat egiten dogu martitzenetan eta hilean batzar orokor bat. 65 komertzio gagoz Igorren. Gainera Udalagaz daukagun harremana sano ona da. Ondo portetan dira eta gu be bai eurekaz. Momentuz sieran oso ondo gabiz.

**AMEren orain arteko ibilbideak bueltea emon deutso egoereari?**

Bai, bai. Askoz be hobeto gagoz orain. Herrirako gauzak egiten doguz. Jaietan parte hartuten dogu, gabonetan zozketaren jaialdia, globoa... hainbat eta hainbat ekintza.

**"Herri biziak merkataritza bizia behar dau" esan zenduan alkarizketa baten.**

Bai. Argi dago, gu mobiduten ez ba-

gara eta herri honetan komertzioak zarratuten hasten badira hemen ez dabe ezer eukiko, orduan kanpora joan beharko dira. Hurbileko adibide bat ipini ezker, Frantzia daukagu. Frantzian esaterako merkatal zentroak kanpoan dagoz eta ondorioz herriak hilda dagoz. Guk ez dogu holakorik pasetarik gura.

**Arratiarrok, bertan erosten dogu?**

Orokorrean ez dakit inguruko dendak zelan dagozan. Baina nire dendara begira Arratia guztiko jentea etorten dala ikusten dot. Anbulatiora be jente asko etorten da, askotan bide batez hemetik pasetan dira. Lemoatik beherantza ez, baina Igorretik Zeanurira arteko erosle asko etorten dira.

**Sahiesbideagaz beherakadarik igarri dozu?**

Egin ebenean konsumoa asko bajaran zala pentsetan genduan baina nik ez dot hainbeste igarri. Besteak ez dakit.

**Zer dauka denda txiki batek, handi batek ez daukana?**

Tratua, esaterako; izan be, merkatal zentro batera bazoaz, han zenbaki bat zara. Normalean, komertzio txiki batera patata batzuk erosten bazoaz, patata horreek baino ez dozuz erosiko. Handi batera bazoaz oster, beste zeozer be erosiko dozu azkenean. Behin barrura sartu ezker beti daukazu edo aldizkari bat edo disko bat... Horretaz aparte, denda txikietan danok ezagututen gara. Bezeroari mesede bat behar izan ezker, egi-

*"25 urtetan gauzak pila bat aldatu dira, orain beste era batera erosten da"*



ten deutzazu baina komertzio handietan ez.

**Merkatal zentroetara joateko jentearen atxakia nagusiak bizaten dira. Batetik prezioa, eta bestetik komodidadea. Zer ereizten deutzazu?**

Nik, Dia dendea daukadan partetik esan behar dot Eroskin ez dagozala hemengo prezioak. Merkatal zentroetan aukeratuteko barietate handiagoa daukiela bai, egia da baina prezioarena ez. Komodidadeagaz segidu ezker, segun komodidadea zeri deitzean deutzagun, ze zapatu baten hara joatea...

**Egia da krisiarena?**

Bai, badago. Halanda be, lehen esan dodan moduan ni Dia-n nago eta krisi denporetan jentea Dia-ra etorten da ze prezio onak daukaz.

**Krisialdiari bueltea emoteko formularik?**

Politikoak be ez dakie, Jainkoak daki.

**Eta jentear herriko denda txikietan erosteko?**

Bardin. Horretan gabiz ibili. Ez dakit zer gehiago egin leiteken. Herrian parte hartuten dogu, ekintzak antolatuten doguz... Seguru egiteko

zeozer egongo dala, hori beti. Eta horretarako gabiz AME be. Batu egiten gara, batzarak egiten doguz... la formula magiko hori topetan dogun.

**Denda txikiak hilgo diran eguna posible ikusten dozu?**

Ez. Ez dot pentsetan. Ni bizitza osoan ibili naz honetan. 90. hamarkada inguruan be holako krisialdi bat egon zan eta handik be urten ginan eta nik pentsetan dot oraingotik be urtengo garela. Hori bai, behar egin behar da. Danon artean ahalegindu beharko gara hau aurrera aterateko. Ez dot sekula be ixtea pentsau. Lehen denda txikiago bat neukan eta gogoagaz ipini neban oraingoa. Hemen jubilauro nazalakoan nago, hori espero dot behintzat.

**Itxaropentsu ikusten dozu etorkizuna?**

Duda barik, nik beti positibo ikusten dot. Gainera, pentsetan dot txarrago ezin leitekela joan. Ez dot pentsetan merkatal zentro gehiago ipiniko diranik. Orduan egin behar dana da jentea erosten kanpora ez joatea lortu. Gehiena ez, dana dauka hemen erosi gura dauanak. Horregaitik, ez dauka zertan Igorretik marxau.

**igorren erosi danok irabazten dogulako**

**012**

**012**

**Igorre**

**Ikur hau daukien dendetan bakarrik**

**Arratiako Merkatarien Elkartea / [www.arratia-merkataria.com](http://www.arratia-merkataria.com)**

**A.M.E**